

## TREBAKUNTZA 2013-10: KATAFORAK ETA ANAFORAK

Askotan, informazio garrantzitsua asko atzeratzen dugu, eta horrek mezua behar bezala ez ulertzea dakar. Aditzarekin gertatzen da askotan, baina ez bakarrik aditzarekin. Zerrendak ematen ditugunean, adibidez, arazo hori sortzen zaigu.

**OHARRA:** asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

### OHIKO AKATSAK

1. \**Alkatea, idazkaria, Hirigintzako zinegotzia, langileen ordezkaria eta IVAPeko ordezkaria izango dira epaimahaikideak.*
2. \* *Gai-zerrendak idatzi, aktak jaso, erreklamazioei erantzun eta jakinarazpenak bidali, horra zure lanpostuaren zereginetako batzuk.*
3. \* **Ondoko hauek** dira gure langaiak: bakarkako interesen gainetik arazoaren ikuspen globala defendatzea, langileriaren batasunaren aldeko lana, kalitatezko informazioa eta gauzak era demokratikoaren bitartez egitea.
4. \* *Gainera, alkatea oporretan izango da datorren hilean. **Hau guztia** kontuan izanda, hurrengo bilera aurreratzea erabaki dugu.*
5. \* *Udaletxean batzorde bat sortu da. **Aipatutako** batzorde horren lana...*
6. \* ..... Arrazoi **hauek** direla medio, erabakia datorren astean hartzea pentsatu dugu.
7. \* *Euria iragarri dute biharko. **Hau dela eta**, plazan egitekoa zen kontzertua kiroldegian egin beharko da.*

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea

[www.uma.org](http://www.uma.org)

Donibane enparantza 1, 1.a  
48380 Aulesti  
Bizkaia  
94-627.91.95

Done Petri 14, behea  
20180 Oiartzun  
Gipuzkoa  
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra  
20.734 Azpeitia  
Gipuzkoa  
943-81.66.99

## ZUZENKETAK ETA AZALPENAK

### \* ZERRENDETAN

Zerrenda bat eman behar badugu, kataforak erabiltzea komeni da: **hauek, honako hauek...** Baina, ez gaztelaniatik hartutako **ondoko hauek, hurrengo hau, jarraian datozen hauek...**

### \*AURREZ AIPATUTAKO ELEMENTU BATEN ERREFERENTZIA

Aurrez aipatu dugun zerbaiti erreferentzia egiteko, **hori, horiek...** erabiliko dugu, eta ez HAU, HAUEK...

**AIPATU** aditza ere beharrik gabe erabiltzen dugu maiz. Gogoratu euskaraz erakusleak dauzkagula aurreko zerbaiten edo norbaiten erreferentzia egiteko. Bestela, erakuslerik gabe ere joan daiteke: *Udaletxean batzorde bat sortu da. **Batzordearen** lana...*

1. **Honako hauek** izango dira epaimahaikideak: alkatea, idazkaria, Hirigintzako zinegotzia, langileen ordezkaria eta IVAPeko ordezkaria.

**Honako hauek** izango dira epaimahaikideak  
**Hona hemen** epaimahaikideak:

- Alkatea
- Idazkaria
- Hirigintzako zinegotzia
- Langileen ordezkaria
- IVAPeko ordezkaria

2. **Hauexek / honako hauek** dira zure lanpostuaren zereginetako batzuk: gai-zerrendak idatzi, aktak jaso, erreklamazioei erantzun eta jakinarazpenak bidali.

**Hauexek / honako hauek** dira zure lanpostuaren zereginetako batzuk / **Hona hemen** zure lanpostuaren zereginetako batzuk:

- Gai-zerrendak idatzi
- Aktak jaso

U d a l e r r i E u s k a l d u n e n M a n k o m u n i t a t e a

[www.uema.org](http://www.uema.org)

Donibane enparantza 1, 1.a  
48380 Aulesti  
Bizkaia  
94-627.91.95

Done Petri 14, behea  
20180 Oiartzun  
Gipuzkoa  
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra  
20.734 Azpeitia  
Gipuzkoa  
943-81.66.99

- Erreklamazioei erantzun
- Jakinarazpenak bidali

3. **Hauexek** dira gure langaiak: bakarkako interesen ginetik arazoaren ikuspen globala defendatzea, langileriaren batasunaren aldeko lana, kalitatezko informazioa eta gauzak era demokratikoaren bitartez egitea.

**Hauexek** dira gure langaiak / **Hona hemen** gure langaiak / **Arlo hauek** landuko ditugu:

- Bakarkako interesen ginetik arazoaren ikuspen globala defendatzea
- Langileriaren batasunaren aldeko lana egitea
- Kalitatezko informazioa ematea
- Gauzak era demokratikoaren bitartez egitea

4. Gainera, alkatea oporretan izango da datorren hilean. **Hori guztia** kontuan izanda, hurrengo bilera aurreratzea erabaki dugu.

5. Udaletxean batzorde bat sortu da. **Batzorde horren** lana...

6. .... Arrazoi **horiek** direla medio, erabakia datorren astean hartzea pentsatu dugu.

7. Euria iragarri dute biharko. **Hori dela eta**, plazan egitekoa zen kontzertua kiroldogian egin beharko da.

\*\*\*\*\*  
\*\*\*\*\*

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu, edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAko teknikariarekin edo zure udaleko euskara teknikariarekin:

Telefonoz: 94-6279195 (Iratxe)

Posta elektronikoz: [iratxe.udalak@uema.org](mailto:iratxe.udalak@uema.org) (Iratxe)

Hurrengora arte!

**Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea**

[www.uema.org](http://www.uema.org)

Donibane enparantza 1, 1.a  
48380 Aulesti  
Bizkaia  
94-627.91.95

Done Petri 14, behea  
20180 Oiartzun  
Gipuzkoa  
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra  
20.734 Azpeitia  
Gipuzkoa  
943-81.66.99